

Edukia

UPV/EHUko Enplegu publikoaren eskaintza.....	2
Informazio orokorra	2
Eskala, kategoria eta espezialitaterako sarbidea	2
Prozesu motak:	2
1.– Enplegu publikoaren egonkortzeko ezohiko prozesua.....	2
2.– Ohiko prozesua	2
Lanpostuen aukeraketa	3
Hautaketa-prozesuen oinarriak	3
Sarbide modalitateak eta txandak	4
Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko betekizunak	4
Eskabideak aurkeztea (5. Oinarri orokorra)	5
Lan-eskaintzen atariaren bidez eskabideak aurkeztea:.....	5
Lan-eskaintzen ataria erabiltzen ez dutenak.....	6
Tasak ordaintzea (5.4. oinarri orokorrak eta BIGARREN c oinarri espezifikoak)	6
Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	7
Prozesu mota bakoitzaren garapena:	8
Lehiaketa-oposizio bidezko deialdiak (funtzionarioen eskaletako plazetarako ohiko prozesua).	8
Merezimendu-lehiaketa bidezko deialdiak (lan-kontratuko langileen plazetarako ohiko prozesua eta enplegu publiko egonkortzeko ezohiko prozesua)	8
LAN-POLTSAK	8
Eranskina: eskabidea aurkezteko moduen GIDA.....	10
I.....	10

UPV/EHUko Enplegu publikoaren eskaintza

Helburua: Administrazio eta zerbitzuetako langileak, funtzionarioak edo lan-kontratadunak, hautatzea.

ERABAKIA, 2022ko maiatzaren 24koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluarena: Onartzea administrazio eta zerbitzuetako langileentzako 2022. urteko lan eskaintza publikoa eta aldatzea 2019, 2020 eta 2021. urteetako lan eskaintza publikoak.

Informazio orokorra

Eduki horiek informazioa emateko eta deialdiaren oinarrien alderdi garrantzitsuenak laburtzeko dira, baina ez dute balio juridikorik. Oso gomendagarria da oinarriak arretaz irakurtzea, horiek baitira hautaketa-prozesuetako alderdi guztiak erregulatzen dituen araua..

Eskala, kategoria eta espezialitaterako sarbidea

UPV/EHU, karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak **eskaletan** biltzen dira. Eskala bakoitza antzeko funtzioak eta titulazio-baldintza komunak dituzten hainbat lanpostuk osatzen dute.

Lan-kontratuko langileentzat gordetako lanpostuak **lanbide-kategorietan eta espezialitateetan** biltzen dira.

Beraz, hautaketa-prozesuak eskala (funtzionario) edo lanbide-kategoria eta espezialitate (lan-kontratuko langile) bakoitzean sartzeko deitzen dira.

Lanpostu jakin bat **hautaketa-prozesuaren amaieran** eskuratuko da, hautagai bakoitzaren azken puntuazioa eta lehentasunak bateratuta, betiere hautatutako lanpostuaren baldintzak (hizkuntza-eskakizuna eta abar) betetzen direla justifikatu ondoren.

Prozesu motak:

1.- Enplegu publikoaren egonkortzeko ezohiko prozesua

Prozesu honen deialdiak merezimendu-lehiaketako hautaketa-sistemaren bidez arautuko dira. Horrek esan nahi du prozesu honetan ez dela probarik edo azterketarik egongo, eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikotik zehaztutako merezimendu batzuk baino ez direla baloratuko: administrazio publikoan izandako esperientzia, titulazioak, hizkuntzak, etab.

Deialdi horiek ez dute lan-poltsarik sortzen.

2.- Ohiko prozesua

Deialdiak honela arautuko dira:

- **karrerako funtzionario** izateko **oposizio-lehiaketako** hautaketa-sistemaren bidez. Horrek esan nahi du oposizio-fase batean izangaiek proba bat gainditu beharko dutela, eta, ondoren, lehiaketa-fase bat egongo dela, merezimenduak baloratzeko.
- **lan-kontratuko langile finko** izateko merezimenduak baloratzeko **lehiaketako hautaketa-sistemaren bidez**

Deialdi horietan eskaintzen diren lanpostuak prozesu-moten artean banatzen dira, eta, horien barruan, txanda eta sarrera modalitate ezberdinen artean.

Horregatik, oinarrietan hala zehazten den deialdi espezifikoa, desgaitasuna duten pertsonak sartzeko modalitatea aurreikusten da.

Era berean, **funtzionarioek** promoziorako duten eskubidea bermatzeko, **barne-promozio**ko deialdiak egingo dira.

Lehiaketa-oposizio bidez egiten diren deialdiek bakarrik emango dute dagokion lanpostu sartzeko aukera..

Pertsona bakoitzak prozesu mota bakarreko deialdietan (egonkortzeko ezohiko deialdietan edo ohiko prozesuko deialdietan), edo bi prozesuetako deialdietan parte hartu ahal izango du, betiere horretarako baldintzak betetzen baditu.

Lanpostuen aukeraketa

Prozesu mota bakoitzean (egonkortzeko ezohikoa edo ohiko prozesua) eskainiko diren lanpostu zehatzak desberdinak dira. Horiek guztiak aukeratu nahi badira, bi prozesu motetan parte hartu beharko da. Prozesu mota bakar batean parte hartuz gero, lanpostuak hautaketa egiterakoan prozesu mota horretan sartutako lanpostuetara mugatuko da.

Hautaketa-prozesuen oinarriak

Deialdien oinarriek osatzen dute prozedurak eta haien ebazpenak bete behar duten legea, beraz, berdin lotzen dituzte parte-hartzaileak, deialdia egin duen administrazioa eta epaimahaiak. Eguno deialdietan, oinarri orokorrak eta oinarri espezifikokoak bereizten dira.

Oinarri orokorrek, funtzionarioen zein lan-kontratuko langileen, langile-mota bakoitzerako prozesuak arautuko dituzten arauak jasotzen dituzte, bai eta prozesu bakoitzean gertatzen diren deialdi guztietarako elementu komunak ere.

Oinarri espezifikokoak Eskalaren (funtzionarioak) eta Kategoriaren eta espezialitatearen (lan-kontratuko langileak) arabera deialdiei buruzkoak dira, bi kasuetan titulazio-taldearen arabera taldekatuta, eta honako elementu hauek arautzen dituzte:

- a) deitutako plaza kopurua, eskalaren (funtzionarioak) edo lan-kontratudunen kasuan, kategoriaren eta espezialitatearen arabera, prozesu mota bakoitzaren barruan, txanda, modalitatea eta hizkuntza-eskakizuna adierazita
- b) deialdi zehatz horretan parte hartzeko berariazko betekizunak: beharrezko titulazioa, ordaindu beharreko tasak, ...
- c) hautaketa-sistema: merezimenduen proba eta balorazioa edo soilik merezimenduen balorazioa.
- d) merezimenduak egiaztatze modua
- e) euskararen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeagatik puntuazioa
- f) Oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez egiten diren deialdietako oposizio-faseko probari dagozkion galderen zerrenda.

Sarbide modalitateak eta txandak

SARBIDE MODALITATEAK	TXANDAK
<p>Sarbide orokorra: Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko baldintza orokorrak betetzen dituen edonork parte har dezake berariazko deialdian.</p>	<p>Txanda librea: Baldintzak betetzen dituen edonorentzako txanda.</p>
	<p>Desgaitasuna duten pertsonen txanda: Arloan eskumena duen organo batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortu dien pertsonentzat gordetako lanpostuak dira..</p>
<p>Barne promozioaren bidezko sarrera: Sarbide horretan parte har dezakete UPV/EHUn jada funtzionario gisa sartuta dauden pertsonak, beren taldeko edo talde bereko eskaletan sartzeko, baina beste eskala batean.</p>	<p>Txanda librea: Baldintzak betetzen dituen UPV/EHUko edozein karrerako funtzionarioentzako txanda.</p>
	<p>Desgaitasuna duten pertsonen txanda: Arloan eskumena duen organo batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortu dien UPV/EHUko karrerako funtzionarioentzako gordetako lanpostuak dira..</p>

Deialdi espezifikoan sartzeko modalitate bakar baten bidez baino ezin izango da parte hartu: sarbide orokorreko eta barne-sustapeneko prozesuetan, horietako bakar batek baino ezin izango du parte hartu.

Deialdi espezifikoan txanda bakar batean parte hartu ahal izango da: txanda irekia eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txanda duten deialdietan, modalitate hauetako batean bakarrik parte hartu ahal izango da.

Hala ere, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako sarbide-modalitateko plazak agortuta modalitate horretan parte-hartzaile gehiago badaude, dagokion txanda eta deialdiko sarbide orokorreko modalitateko plaza lortu ahal izango dute, prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.

Deialdi espezifiko bakoitzak dauden modalitateak eta txandak adieraziko ditu. Merezimendu-lehiaketa hautaketa-sistema duten prozesuetan ez da barne-promozioaren bidezko sarbiderik egongo, ezta desgaitasuna duten pertsonentzako txandarik ere.

Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko betekizunak

- A. **Prozesu guztietarako betekizun orokorrak, txanda eta sarbide modalitate guztietarako (Laugarren oinarri orokorra)**
Betekizun horiek honako hauei buruzkoak dira: nazionalitatea, gaitasun funtzionala, adina, titulazioa (prozesu bakoitzerako, dagokion deialdia zehaztuko du oinarri espezifikoetan), hautaketa-prozesuan parte hartzea eragozten duen egoeran ez egotea (ebazpen judicial bidez, diziplina-espediente bidez), ezgaitasun- edo bateraezintasun-egoeran ez egotea, eta dagokion tasa ordaintzea.
- B. **Deialdi batzuetako betekizun espezifikoak (Bigarren oinarri espezifikoak).**
Oinarri espezifikoek, plaza jakin batzuetarako, prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak, betekizun orokorrez gain (titulu edo ziurtagiri jakin batzuk, hizkuntza-mailak eta abar), bete beharko dituzten baldintza espezifikoak jasotzen dituzte..
- C. **Barne promozioaren sarbidean parte hartzeko betekizunak (Barne promozioetako deialdiak bere oinarri orokor eta espezifikoak dituzte)**

- Karrerako funtzionario izatea UPV/EHU, zerbitzu aktiboan edo lanpostua gordetzea dakarren beste administrazio egoera batean, eta egoera horretan mantendu beharko da, harik eta lanpostua jabetzan hartu arte
- Lortu nahi den plazari dagokion sailkapen taldearen azpitik hurrena dagoen taldeko eskalaren batekoa izatea edo talde bereko eskalaren batekoa, bat etorrita deialdiko oinarri espezifikoein.
- Jatorrizko plazarekin bat datorren postu batean bi urteko zerbitzuak beteta edukitzea UPV/EHUko karrerako funtzionario gisa
- Oinarri espezifikoetan adierazitako baldintzak betetzea

D. **Desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-txandan parte hartzeko baldintzak (5.2. Oinarri orokorra)**

Modalitate honetan parte har dezakete % 33ko edo desgaitasun handiagoa dutenek administrazioko organo eskudunak aitortua (foru aldundiak, IMSERSOk edo pareko organoak)

E. **Noiz bete behar diren hautaketa-prozesuetan parte hartzeko baldintzak**

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete behar dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren betekizunak, hizkuntza-eskakizunen egiaztapena izan ezik, horren epea LEP honen deialdi espezifikoen barruan deitutako proben behin betiko emaitzak argitaratu baino lehen amaituko da.

Eskabideak aurkeztea (5. Oinarri orokorra)

Eskabide bat aurkeztu beharko da parte hartu nahi den deialdi espezifiko bakoitzeko. Deialdi horiek prozesu motaren arabera berezita daude, eta, prozesu barruan, sarbide-modalitatearen arabera, hala aurreikusitako kasuetan.

Deialdi espezifikoek beren izenean adierazten dute zein prozesutakoak diren. Hau da, administrazio-eskalaren ohiko prozesuaren deialdia dago, eta beste deialdi bat, egonkortzeko ezohiko prozesuaren administrazio-eskalaren deialdirako. Administrazio-eskalan sartzeko ohiko prozesuan zein egonkortzeko ezohiko prozesuan parte hartu nahi bada, bi eskabide bete beharko dira, deialdi bakoitzerako bat.

Barne promozioen bidezko sarbide-modalitatea dagoen kasuetan, deialdietan izen hori jasotzen da, baina modalitate horretako parte-hartzeak ez du ahalbidetzen sarbide orokorreko modalitatearen bidez parte hartzea.

Deialdi espezifikoetan parte hartu ahal izateko, hiru urrats hauek bete behar dira nahitaez:

1. Eskaeraren atal guztiak betetzea
2. Oinarri espezifikoetan zehaztutako epean aurkeztea
3. Deialdietan izena emategatik ordaindu beharreko tasak ordaintzea, oinarri espezifikoetan zehaztutako epearen barrua

Lan-eskaintzen atariaren bidez eskabideak aurkeztea:

Eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, Enpleguaren Atariaren bidez batez ere, helbide elektroniko honetan: https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp

Horretarako, beharrezkoa da erabiltzaile eta pasahitz baten bidez identifikatzea. Erregistratuta ez daudenek aldeztu aurretik bete beharko dute erregistro-prozesua.

Lan-eskaintzaren ataritik bidalitako eskabideak ez dira berriz aurkeztu behar formatu inprimatuan. Hala ere, tasa ordaindu baduzu sistemak emandako abonua-agiririk gabe, ordainagiria aurkeztu beharko duzu.

Lan-eskaintzen atarian kontsultatu ahal izango dira onartutako eta baztertutako zerrendak, deialdiaren fase bakoitzean lortutako puntuazioak eta fase bakoitzean aurkeztutako erreklamazioen erantzunak

Lan-eskaintzen atarian AZPkoei laguntzeko gida bat dago eskuragarri



Lan-eskaintzen ataria erabiltzen ez dutenak

Deialdi espezifikoaren web orrian eskuragarri egongo den eskari orria beteta. Eskari orria oinarri orokorretako 5.3 atalean adierazitako bulegoetan ere emango da.

Eskaria UPV/EHUn erregistro elektronikoa aurkeztu beharko da (<https://egoitza.ehu.es/eu/registroelectronico>) "Jasotzailea" atalean Gerentzia adierazita eta gero Pertsonaleko gerenteordetza.

Jasotzailea

Gerentzia / Gerencia ()

Pertsonalaren Gerenteordetza / Vicegerencia de Personal (U02000214)

Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, BAKQ edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES)

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan, aurrez aurre. Bulego hauen ordutegia helbide honetan kontsulta daiteke: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html¹

Eskaria posta bulegoetan aurkeztu dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.)

Eskarian honako datu hauek eman beharko ditu hautagaiak:

- Datu pertsonalak, prozesua behar bezala gestiona dadin
- Ohiko prozesuan, zein txandatan hartu nahi duen parte, bat etorrita oinarri espezifikoekin:
 - txanda librean
 - desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txandan
- Oposizio faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren: euskaraz ala gaztelaniaz. Atal hori bete ezean, probak gaztelaniaz egitea aukeratu dela ulertuko da.
- Hautaketa-probak egiteko egokitzat jotzen diren denbora eta bitartekoak egokitzea eta egokitzea eskatzeko aukera.
- Alegatutako titulazioa (eskala edo kategoria profesional bakoitzerako oinarri espezifikoetan adierazitakoetakoren batekin bat etorri beharko du.)
- Zinpeko adierazpena, hautagaiak adierazita baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete ere.

Tasak ordaintzea (5.4. oinarri orokorrak eta BIGARREN c oinarri espezifikoak)

ADI: Oinarri espezifikoetan eskabideak aurkezteko ezarritako epearen barruan ordaindu beharko da tasa.

¹ Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak, **aurrez aurreko hitzorduaren bidez**, (kontsultatu web-helbidea)

Deialdi bakoitzean zehaztuko da azterketa eskubideengatik ordaindu beharreko kopurua.

Eskariak aurkezteko epean tasak ordaindu ezean, hautagaia prozeduratik kanpo geratuko da.

Hala ere, ordaindutako zenbatekoan egindako akatsa erreklamazio-aldian zuzendu ahal izango da (10 egun balioduneko epea).

Ordaintzeko bi era daude:

1.- Online ordainketa.

Ordaintzeko modu hori enpleguaren ataritik sartzen da zuzenean. Behin eskaera bidalita, ordainketa-pasabidean sartzen da..

2.- Offline ordainketa.

Sistemak sortutako ordainketa-gutuna inprimatzen bada KUTXABANKen edozein sukurtsaletara joan daiteke, ordaintzera. Halaber, barra-kodearen irakurgailua duten edo datuak eskuz atzeman ditzaketen kutxazain automatikoetan ordain daiteke tasa.

Bai online ordaindutako, bai sistemak sortutako ordainketa-gutunarekin egindako kasuetan ez da beharrezkoa ordainagiria administrazioari bidaltzea, finantza-erakundeek automatikoki bidaliko baitituzte ordainketa-datuak.

Eskariarekin batera azterketa egiteko tasa osorik ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da ordainketa adierazitako prozedurari jarraitu gabe egin bada.

Tasak ordaintzetik salbuetsita egongo dira:

- a) **Enplegu bulegoetan lana bilatzeko izena emanda dauden** eta inongo prestaziorik jasotzen ez duten pertsonak.
- b) **% 33ko desgaitasuna** edo handiagoa daukaten hautagaiak.
- c) **Familia ugariko kide** diren hautagaiak, Familia Ugaria Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 12.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Egoera horietakoren batean daudenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera.

[Ikusi eskabidea aurkezteko GIDA \(dokumentu honen amaieran\)](#)

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Bi prozesuetako (ohikoa eta enplegu publikoa egonkortzeko ezohikoan) deialdi guztietan:

- Pertsona guztiak: alegatutako titulazioaren kopia edo horren ordezko agiria. (Oinarri orokorra 5.2 g letra).
- Tasa ordaintzetik salbuetsita daudenak:
 - **Langabeziagatik:** eskariak aurkezteko epearen barruan lan bila dabiltzala egiaztatzekeko administrazio eskudunak igorritako ziurtagiria eta eskaerak aurkezteko emandako denbora-tartean inolako prestaziorik jasotzen ez dutela egiaztatzekeko Estatuko Enplegu Zerbitzuak (SEPE) igorritako ziurtagiria.
 - **% 33ko desgaitasuna edo handiagoa daukaten hautagaiak,** egoera hori egiaztatzen duen agiria.
 - **Familia ugariko kide diren hautagaiak,** Eskaria aurkezten den egunean familia ugariko kide direla egiaztatzekeko agiria.

Funtzionarioentzako ohiko prozesuetako deialdietan:

- Desgaitasuna duten pertsonentzako txandan parte hartzen dutenek: desgaitasuna aitortzeko ebazpenaren fotokopia (5.2 oinarri orokorra, f letra).
- Ariketak egiteko egokitzapen teknikoak eta denbora eta bitartekoen arazoizko doikuntzak eskatzen dituztenak eskariarekin batera, desgaitasun maila kalifikatzeko organo teknikoak emandako irizpen tekniko fakultatiboaren kopia aurkeztu beharko du nahitaez. Bertan, aitortutako desgaitasun maila eragin duten gabezia iraunkorrak modu frogagarrian egiaztatu beharko dira.

OHARRA: UPV/EHU datu hauek ofizioz egiaztatzen saiatuko da eskumena duen administrazioan, hala dagokionean, salbu eta interesdunak aurka egiteko eskubidea baliatuz horren aurka egiten badu: desgaitasun aitortpena, langabezia-egoera eta laguntza ekonomikorik ez jasotzea, familia ugariako kide izatea, hezkuntza-titulazioak, euskara ziurtagiriak eta EAEko administrazio publikoetan emandako zerbitzuak.
Aurka egiteak kontsultaren xede diren dokumentuen zerrenda aurkezteko betebeharra dakar. UPV/EHUK prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango du aipatutako dokumentazioa aurkezteko, egiaztapena egin ezin izan denean.

MEREZIMENDUAK AURKEZTEKO DEIALDI BAKOITZEAN ADIERAZIKO DA NOLA EGIN BEHARKO DA.

Prozesu mota bakoitzaren garapena:

Lehiaketa-oposizio bidezko deialdiak (funtzionarioen eskaletako plazetarako ohiko prozesua).

Oposizio Fasea: Ariketa bakarra idatzia izango da. Test motako galdetegi bat izango da; galdera bakoitzak lau erantzun aukeran eta bakar bat zuzena. Galderak aukeratuko dira galdera sorta batetik.

Lehiaketa Fasea: Merezimendu profesionalak (administrazio publikoetan emandako zerbitzuak) eta akademikoak (titulazioak, hizkuntzak) baloratuko dira, deialdi espezifiko bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitakoaren arabera.

Euskararen balorazioa oinarri espezifikoaren arabera, eta IVAPek egingo duen proba baten bidez egiaztatu ahal izango da.

Merezimendu-lehiaketa bidezko deialdiak (lan-kontratuko langileen plazetarako ohiko prozesua eta enplegu publiko egonkortzeko ezohiko prozesua)

Merezimenduen balorazioa

Merezimendu profesionalak herri-administrazioetan egindako zerbitzuak baloratuko dira.

Merezimendu akademikoak: titulazio akademikoak, hizkuntza ez-ofizialak, hautaketa-prozesuak gainditu izana eta UPV/EHUko eskala bereko lan-poltsan egotea.

Euskararen balorazioa oinarri espezifikoaren arabera, eta IVAPek egingo duen proba baten bidez egiaztatu ahal izango da.


LAN-POLTSAK

Lehiaketa-sistemaren bidez egiten diren prozesuetako deialdi espezifikoek ez dute lan-poltsarik sortuko.

Lehiaketa-oposizio bidez egiten diren deialdiek (hau da, azterketa bat barne hartzen dutenek) bakarrik sortuko dute dagozkien lan-poltsak osatzeko eskubidea, baldin eta izangaiak oposizio-fasean 17,5eko nota lortu badu. Pertsona horiek dagozkien lan-poltsan sartuko dira, pertsona egonkorren eta lehenetsien ondoren. Pertsona hauek ere dagozkion LEPko azterketa behar izango dute izaera horri eusteko.

Informazio gehiago: <https://www.ehu.eus/eu/web/azp/lan-poltsak1>

Eranskina: eskabidea aurkezteko moduen GIDA



³ [Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak](#) aurrez aurreko, hitzorduaren bidez (kontsultatu web-helbidea):

Erregistroaren arloko laguntza-bulegoetara joateko, beharrezkoa da:

- Aurretiko hitzorduarekin joatea. Aurretiko hitzorduaren ataria <https://aurretiko-hitzordua.ehu.eus/hasiera/#>

- Interesduna NANarekin edo egiaztagiriarekin identifikatzea.

- Interesduna ez badator, haren ordeez beste pertsona bat badator, baimen-inprimaki bat aurkeztu behar da, beteta, bi pertsonen NANen fotokopiarekin batera. Inprimaki hori UPV/EHUko Erregistro Orokorraren web-orritik jaitsi daiteke.